

PROBA ESPEZIFIKOA

2016ko PROBA

**ARTEAREN
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2016ko MAIATZA

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2016

HISTORIA DEL ARTE

Probak bi atal ditu:

1. atala: bi irudi eskaintzen dira, eta haietako bati iruzkina egin behar zaio. Atal honek 10etik 5 puntu balio du.

2. atala: bi gai proposatzen dira, eta haietako bat garatu behar da. Atal honek 10etik 5 puntu balio du.

1. atala:

AZTERTU ETA IRUZKINDU BI IRUDI HAUETAKO BAT: (5 puntu).

- Sailkatu obra, eta, horretarako, adierazi estiloa eta noizkoa den gutxi gorabehera.
- Egin obraren azterketa formal eta ikonografikoa.
- Aztertu, labur, zer testuinguru historiko eta artistikotan egin zen.

A)





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2016ko MAIATZA


ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2016

HISTORIA DEL ARTE

B)



2. atala:

GARATU BI GAI HAUETAKO BAT: (5 puntu).

- A. Eskultura grekoa: Aldi arkaikoa.
- B. Fauvismoa: Matisse.



- **KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK**

Galdera bakoitzaren ondoren, dagokion puntuazioa ageri da. Guztira, 10 puntu dira.

- **EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Irizpide orokorra

Erantzunen zuzentasuna, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, egituratzea, lexikoaren kalitatea eta hizkuntzaren zuzentasuna baloratuko dira.

Irizpide espezifikoak

- Artelanak beren testuinguruan analizatu eta interpretatzen ditu, diziplinaren lexikoa espezifikoa zuzen erabiliz.
- Zehaztasunez interpretatzen du arte-mintzaira (formak, gaiak eta esanahiak).
- Zenbait tokitako obren arteko alderaketak egiten ditu, haien arteko desberdintasunak, antzekotasunak eta erlazioak adieraziz.
- Gaien tratamenduan gertatzen den aldaketa deskribatzen du, eta arteari elkartutako erabilera eta funtzio berriak ere adierazten ditu.
- Modu egokian garatzen du Artearen Historiari buruzko gai teoriko bat.

GALDEKIZUNEN ETA CURRICULUMAREN ARTEKO LOTURA

GALDERA	IKASKUNTZA-UNITATEA
1 A	2. blokea
1 B	2. blokea
2 A	2. blokea
2 B	2. blokea

- **EBAZPEN ORIENTAGARRIA**

1 A atala San Martin Frómistakoaren eliza (Palentzia).

Egilea: anonimoa, XI. mendea.

Obrari San Martin Frómistakoaren eliza deritzo; Donejakue Bidean dago (Bide Frantsesa), zeinak ekialdetik mendebaldera zeharkatzen baitu Palentzia probintzia, Burgos eta León probintziak lotuz, Sasanondik Asturica Augustara zihoan antzinako erromatar galtzadari jarraituz.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2016ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2016

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

Bide horren ibilbidean dago Frómista del Camino, Doña Munia Antso Gaztelako kondearen alaba eta Antso Nagusia Nafarroakoaren alargunak eraikiarazia 1066an (XI. m.); hala ere, badira zalantza batzuk data horri buruz.

Frómistako eliza estilo erromanikoaren adibiderik garrantzitsuenetako bat da. Proposatu den irudia San Martin Frómistakoaren elizaren kanpoaldeko bista orokor bat da. Basilika-oinplanoa du.

Nabeek lau tarte dituzte, bata bestetik oinplano karratuko pilarez bereziak; pilareek kolomaerdi atxikiak dituzte, eta haietatik abiatzen dira parpain-arkuak eta formeretak. Tarteak bat datoz kanpoko ostikoekin. Bi dorre zilindriko daude mendebaldeko fatxadaren alde banatan. Fatxada horrek portada bat du, bai eta iparraldekoak eta hegoaldekoak ere. Albo-fatxadek argia igarotzen uzten dute hiru leihoren bidez. Aipagarria da beste tarte bat, gurutzadurari dagokiona: haren besoak ez dira irteten alboko murrueetatik, baina dimentsioek adierazten dute gainerakoa baino garrantzitsuagoa dela. Gurutzaduran, kupula altxatzen da. Nabeen kategoria absideekin erlazioan dago. Erdizirkularrak dira hirurak; erdialdekoa zabalagoa da.

Eraikina harrizkoa da, ongi landutako harlanduzkoa.

Ganga-forman eraikia dago, eta erdi-puntuko arkuak erabiltzen dira. Tarte guztiak kanoi-gangaz eratuta daude, parpain-arkuz eta formeretez osatutako egitura bat garatuz. Gurutzaduraren erdian, zinborio bat dago, oso argitsua, kanpoaldean linterna oktogonal gisa ageri dena. Hiru absideek eskema bera errepikatzen dute; estalkia esfera-laurdenekoa da. Dorre zilindrikoak ganga helikoidalez estalita daude. Erdi-puntuko arkua da eraikuntzako osagai nagusia.

Eraikinaren oreka-sistema nabe zentraleko ganga alboko nabe baxuagoetan bermatuz ebazten da; alboko nabeak, bestalde, murre eta ostikoetan bermatzen dira.

Ikusgai dagoen dekorazioa kapitela figuratiboetan kontzentratuta dago (haietako batzuk obra klasikoetan zuzenean inspiratuta daude) eta, batez ere, erlaitzetan. Haietan, xakeztatze-lerroak nabari dira (inposta-lerro gisa ere ageri dira murrueen erdialdean), bai eta harburu ugari ere, zeinak, mentsula-funtzioa eginez, hegalaria eutsi eta erliebe batzuk aplikatzeko toki gisa balio baitute.

Saiakuntzat hartzekoak diren estilo prerromanikoen prozesu luze baten amaieran gaude, eta baditu eragin bizantziarrak eta Ekialdekoak ere, Italian eta Iberiar penintsulan barrena iritsiak eta, geroago, gurutzatuek Mediterraneoaren ekialdeko kulturekin izandako zuzeneko harremanaren bidez iritsiak.

Sintesi-arte bat izateaz gainera, erromanikoa bada feudalismoaren artea ere, zeren eta bat baitator Europako mendebaldearen IX. mendetik XII. mendera bitarteko antolamendu politiko, sozial eta ekonomikoarekin

Europa mehatxaturik dago; normandiarren inbasioak Atlantikoan, Islama Mediterraneoan eta eslaviarrak ekialdean. Europa hori, bere baitan itxia, nagusiki



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2016ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2016

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

iraupeneko nekazaritzan oinarritzen du bere ekonomia. Lurra, beraz, aberastasun-faktore nagusia da, eta feudoa, jauntxo baten mendeko latifundio gisa, oinarritzko ekoizpen-unitatea da.

1 B atala “Garrasia”, Edvard Munch, 1893.

Edvard Munch norvegiar pintorearen olio-pintura, 1893an egina. *Biziaren frisoa* izeneko obraren barnean dago. Gaur egun, Stockholmgo Museoa dago.

Figura nagusia lehen planoan dago, zentratuta. Hala ere, bai barandak, bai hondoko kurbak (bai eta haren jarrera uhinduak ere) dinamismo bortitza ematen diote eszena osoari.

Kontrajartze bat dago kolore-gama bero eta hotzen artean, eta kontrastea sortzen dute elkarrekin. Bai kolore batzuk bai besteak erabat antinaturalistak dira, errealitatearekin inolako kontakturik ez dutenak.

Diagonalei eta lerro ondulatuei esker (bai eta figuren arteko tamainadesberdintasunagatik ere), espazio-sentsazio bortitz bat nabari da, lehen planotik hondoraino garamatzana tarteko punturik gabe. Hala, figura hondoarekin komunikatzen du, eta halako larritasun bat sortzen du eszenari begiratzean, mugimendu azkarrekin baikaramatza toki batetik bestera. (Perspektiba azeleratua).

Lehen planoko figura kurba jarraitu bidez deformatuta dago, eta sugar-itxura hartzen du. Bestalde, ez dago inolako xehetasunik; aurpegia edo eskuak oso eskematikoak dira.

Zer islatu nahi zuen Munchek bere margolanean garrasia egiten ari den pertsonaren aurpegi larrituaren bidez? Pintorearen beraren larriminaren isla izan liteke, edo baliteke garrasiak garaiko antolamendu sozioekonomiko berriaren kritika bat ezkutatzea. Hitz batez, baliteke Munchek garrasi egitea Industria Iraultzarekin batera gertatu ziren gizarte-injustizien eta desparekotasun ekonomikoen aurka.

Espresionismoari dagokio, hau da, errealitate objektiboa irudikatu beharrean autorearen sentimendu eta emozioak adieraztea bilatzen zuen arte-korronteari. Alegia, sentimendu horiek lehenesten zituen formak berak baino lehen. Artista espresionistak nahi du haren obrek inpaktu nagusiki emoziozkoa sortzea.

2 A atala.- Eskultura grekoa: Aldi Arkaikoa.

Gizakia da eskultura grekoaren zentroa, antropozentrismoa; edertasuna, espresioa eta mugimendua dira eskultura grekoaren bereizgarri nagusiak. Dena dela, horri dagokionez, bilakaera garbi bat gertatu zen denboran zehar perfekziora iritsi arte, hori erabat lortu arte: sinpletasun arkaikotik barrokismo helenistikora.

Aldi Arkaikoa, K.a. VIII. mendetik K.a. VI. mendera, Aro Iluna deitutakoaren amaieratik Gerra Medikoetara bitartean (K.a 490-480). Aldi arkaikoan, harriz



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2016ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2016

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

egindako tamaina handiko lehenengo eskulturak ageri dira. Nagusiki, bi motatakoak dira, biak oso bereziak: Kouroi edo efeboak (kourós singularrean), atleta biluzien irudiak; eta korai edo neskak (kore singularrean), emakume eskaintzaile soinekodunen irudiak. Zenbait jainko-jainkosen omenezkoak ziren, eta ez ziren erretratuak, jaierazko estatua idealizatu eta oroitzapenezkoak baizik.

Hauek dira eskultura arkaikoaren ezaugarri nagusiak: gorputz osokoa izatea; jarrera hieratikoa; frontaltasunaren legea; modelatu xumea eta oso geometrikoa; estatismoa, zeren eta ezker-hanka bakarrik aurreratzen baita pixka bat ibiltze-higidura iradokitzeko, baina lekualdatzearen sentsazioa lortu gabe; eta beste konbentzionalismo batzuk, hala nola obalo-formako begi handiak, irribarre arkaikoa, keinu behartu eta konbentzional baten bidezko aurpegiera, elementu geometrikoz osatutako adats luzeak, etab.

Koraietan, jantzita baitaude, garrantzitsuagoa da tolesak aztertzea anatomia aztertzea baino. Nagusiki, bi mota daude: peplo dorikoa dutenak (tunika lodi eta tolesik gabea), eta kitoi joniarra (testura finekoa eta toles ugariak); bi oinak elkarrekin; eskua libre, edo soinekoari atxikia edo eskaingai bat daramana; irribarre arkaikoarekin.

Estatua erlijiosoak dira, tenpluetan aurkituak. Adibideak: *Auxerreko dama*, xoanonetatik eratorria; *Hera Samoskoa*, oso arkaikoa oraindik; *Kore peploduna* eta K.a. VI. mendeko beste *korai eboluzionatu* batzuk, gorago deskribatutakoak bezala.

K.a. VII. mendeko kouroiak: Ezker-hanka aurreratua, baina higidura-sentsaziorik gabe, bi oinazpiak lurrari atxikita baitaude; besoak eroriak, gorputzari atxikiak eta eskumuturrak itxita; modelatu xumea (forma gero eta lortuagoetarantz eboluzionatuko du), geometrizazio handiarekin (batez ere, ilean eta gorputzenborrean), eta desproporzioak gorputzaren atalen artean; obalo-formako begi irtenak; ahoa beti itxia eta "irribarre arkaikoa". Adibideak: *Kleobis eta Biton*.

K.a. VI. mendeko kouroiak: Forma biribilduetarantz eboluzionatu zuten, eta modelatu anatomikoa hobetu egin zen; formen geometrizazioa ere txikiagoa da; jada higidura leunak nabari dira; elementu berriak ageri dira. Adibideak: *Moskoforoa* (eskaingai gisa zekorria daraman gaztea); *Rampin zalduna*, burua pixka bat biratua duena.

2 B atala. Fauvismoa: Matisse.

Lehen Mundu Gerrak Mendebaldeko munduaren pentsamoldea aldatu zuen: eredu politiko inperialistak eta baikortasun tekniko-zientifikoak behera egin zuten bat-batean. Gerra-makina berriek aurreko gerra guztietan baino askoz biktima gehiago eragin zituzten. Europaren arrazoimen zaharra lubakietan lurperatuta gelditu zen, eta pintore kubistek jada garatua zuten errealitatea deskonposatzeko modu berriak justifikazioa aurkitzen zuten, bai eta dadaisten nihilismo agintearekiko adeigabeak ere.

Artistak iragarleak ere izan ziren, faxismoaren hondamena eta Bigarren Mundu Gerraren inoiz ez bezalako basakeria aurretik aurreikusi baitzuten.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2016ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2016

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

“Abangoardiako” artistak hautu demokratiko eta aurrerakoien aldekoak izan ziren gehienbat. Baina, nahiz eta haietako batzuen obrak batzuetan erabiliak izan garaiko gudu politikoetan, garrantzitsua da azpimarratzea propaganda hutsaren aldean dituzten desberdintasunak.

Arteak frogatu zuen ez zela agortzen mezu koiunturaletan: abangoardiek bide berriak ireki zizkioten sormenari, eta modu miragarrian hedatu zuten artistikoaren nozioa.

Hori esan arren, beharrezkoa da aitortzea zaila dela zatitzaile komunak aurkitzea bata bestetik hain diferenteak diren mugimendu eta artisten artean. Fauvismoak gauza asko heredatu zituen postinpresionismotik, hala nola kolore-puntuak (pintzelkada bihurtzera iritsi ziren) eta pinturaren emozio-alderdietan jarritako enfasia; horretan, espresionismora hurbiltzen da, hura ere arduratu baitzen artearen ideia garatzen sortzailearen subjektibitateko ibilgailu gisa.

Parisko Udazkeneko Erakusketan (1905), pintura-joera berri bat agertu zen: fauvismoa. Louis Vauxcelles kritikariak fauves (basapiztiak) izendapena erabili zuen erakusketa hartan margolanak jarri zituen artista talde bat izendatzeko. Zehazki, ez zuten programa artistikorik, haien ikurrizta "guztiaren aurka matxinatzea" baitzen.

Hauek dira fauvismoaren ezaugarriak:

Batez ere, kolorearen independentzia ezartzen dute gorespenera edo bortxara iritsi arte, nahasterik eta ñabardurarik gabe. Kolorea objektutik independente bihurtzen da, eta objektua modu arbitrarioan erabiltzen du naturarekiko; horren emaitza dira aurpegi berdeak, zuhaitz urdinak, itsaso gorri, arrosa edo moreak, haien tonu kuttunak. Horretan saiatuak ziren lehenago Van Gogh eta Gauguin.

Marraskia kolorearen marra lodiarekin egiten da. Hainbestearainokoa da haren independentzia-zentzua, non lerro baten kolorea aldatuz baitoa; hala, irudi berean, gerta daiteke parte batuk kolore batekoak izatea eta beste batzuk beste batekoak.

Bazter uzten da harmonia klasikoa, eta koloretan nabarmenkeria da nagusi; konposizioaren puntu batzuetan jartzen da pisu nagusia.

Artistaren bere gaiarekiko grina nabari da, baina zaindu egiten da "ikuslearentzat atsegingarri" izatea. Matisseren arabera, pintore batek bere sentimendua erakusteko dituen elementuak modu apaingarrian antolatzearen artea da konposizioa.

Pinturaren autonomia: margolanak bere barne-logika du, eta bere materialtasunaz kanpoko erreferentziekiko independentea da; argia desagertu ohi da, eta, berarekin batera, sakontasuna; konposizioak plano bakarrekoak dira, formak sinplifikatuz, Gauguinen antzera.

Gaiak inpresionismoaren berak dira: paisaiak, forma ugariko natura hilak, geletako pertsonak, perspektiba zabalak, etab. Modu liriko eta emozionalean interpretatuak.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2016ko MAIATZA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2016

ARTEAREN HISTORIA

HISTORIA DEL ARTE

Taldearen burua Henri Matisse da (1869-1954), fauvismoaren printzipioei leialen irauten zuen pintorea. Matisseren pintura XX. mendeko abenturarik apartenetako bat da; eta, nolabait, beraren irudiaz eta bizitzaz bestelakoa da, burgesiaren ohiko lasaitasun- eta lotsa-giroko bizimodu ordenatua izan baitzuen.

Ikasle-garaian, inpresionismoaren, Van Goghen, Cézanneren eta neoinpresionismoaren eragin nabarmenak izan zituen. 1905eko erakusketan aurkeztu zituen obretan, oihartzun horiek nabari dira oraindik.

1910ean, beraren arterako erabakigarria izan zen beste elementu bat aurkitu zuen Matissek: ekialdea eta islamak; Marokora egin zuen lehenengo bidaiari, txunditu egin zuten. Haietatik aterako zuen, geroago, bere lerro ondulatuaren inspirazioa, arabeskoa. Harrezkero, Matisseren abentura estilo pertsonal batera jo, eta prestigioa lortu zuen. Bere gaiak garatu zituen: emakumea, odaliskak, barnealdeak, leihoak, biluzia, pintaketa, dekorazioa eta eszenografia. Eskultore gisa, lehen mailakoa da. Rodinen esperientzietan jarraipena eman zien, eta hiru dimentsiora eramanez zituen bere aurkikuntza piktorikoak.

1917az geroztik, Nizan bizi izan zen ia modu egonkorrean, berak hainbeste behar zuen argi zoragarriak distira egiten duen tokian. Gaur egun, bizitza luze eta emankor baten emaitzen aurrean, oso-osorik uler dezakegu Guillaume Apollinaireren intuizioa, zeinak 1917an hau idatzi baitzuen: Frantziaren dohainik samurrenek bat egiten dute artista honengan: xalotasunaren indarra eta argiaren leuntasuna. Bi alderdiok, argia eta konposizio-xalotasuna, bere-bereak zituen Moneten inpresionismoak. Halaber, sendotasuna bilatzen du, inpresionisten lilura laburrari kontrajarria, eta obra gogamenaren sorkari gisa ulertzen du, ez begien samurtasun gisa.

Harmonia gorrian, 1908an (Hermitage Museoan, San Petersburgo), Gauguin-en obratik abiatuak, margolana gainazal koloreztatu gisa ulertzen du, ez objektuen errepresentazio gisa, eta kolore eta arabesko bidez eraikitzen du. Margolanaz duen kontzeptzio lauaren ondorioz, mahai-oihalaren eta hormaren dekorazioak bat egiten dute, eta sakontasun-sentsazioa goiko ertzeko leihora murriztuta dago.

Dantza, 1910, olio-pintura, Hermitage Museoan, San Petersburgo. Maiz, pintura eta musika ez harmonia kontzeptu gisa baizik eta objektu piktoriko gisa ageri dira Matisseren obretan. 1920an, Diaghilev errusiar koreografoak Stravinskiren *Urretxindorra* balletaren eszenografia eta jantziak enkargatu zizkion. Margolan hau liluragarria da bere egituraren sinpletasunagatik, kolore-aukeragatik (urdina, gorria eta berdea) eta mugimenduagatik, bai baitirudi mihiseak ezin duela gerarazi. Kontrasteak eta ñabardurarik gabeko koloreek eragiten dute mugimendua, silueta muxarratuak sortuz, zeinak elkarri lotuak baitaude mugimendu zirkular betiereko batean, berde-urdin orekarekin bat eta irudia bete eta bizia ematen dion tonu beroarekin kontrastearekin bat. Matissek banaka aztertzen du eraikuntzaren elementuetako bakoitza: marrazkia, kolorea, forma, mugimendua eta konposizioa, guztiek sintesi batean eta oreka musikal batean bat egin dezaten.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2016ko MAIATZA

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2016

HISTORIA DEL ARTE

Erretratua marra berdearekin, olio-pintura, Arte Museoa, Kopenhage. Izen hori du margolanak aurpegia ilearen azpian bitan banatzen duen marra ausartagatik. Hala, argia eta erliebea ematen dio, koloreak konbinatzearen ondorioz: ile beltzaren masak, isla urdin-morez osatua, aurpegia enkoadratzen du, zeinaren eskuinaldeko tonu horixkak eta ezker aldeko arrosak nabarmentzen baitira bekainen trazu beltz-urdinxken, profilaren ingeraden eta soinekoaren gorriaren bidez. Fauvisten tonu bereizgarrien konbinazioan oinarritzen da obra; horia, gorria, urdina, modu arbitrarioan hautatuak, malenkonia-sentsazio bat sortuz. Matisserengandik gertuen dauden artistak Raoul Dufy, Albert Marquet eta André Derain dira.